

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eremu ez-euskalduneko D ereduaren eskaintzari buruzko informazio-hitzaldien zikloari ekingo zaio astelehenean

Lodosa, Castejonen, Caparrosen, Cintruenigon, Tafallan, Antzinen, Tuteran, Allon, Los Arcosen, Zangozan, Noainen, Larragan, Mendigorrian eta Peraltan

Osteguna, 2017.eko urtarrilak 26

Haur eta Lehen Hezkuntzan aurre-inskripzioa egiteko hurrengo aldiari begira ikastetxeak promozionatzeko "Aukeratu publikoa. Kalitateagatik, gertutasunagatik" lelopean egingo den publizitate-kanpaina orokorraren barruan, datorren astelehenean, urtarrilak 30, eremu ez-euskaldunetan informazio-hitzaldien ziklo bati ekingo zaio Lodosan eta Castejonen; asteartean, hilak 31, Caparrosen eta Cintruenigon; asteazkenean, otsailak 1, Tafallan eta Antzinen; otsailaren 2an, osteguna, Tuteran eta Allon; ostiralean, hilak 3, Los Arcosen eta Zangozan; otsailaren 6an, astelehena, Noainen eta Larragan, eta asteartean, otsailak 7, Mendigorrian eta Peraltan. 17:00etan hasiko dira hitzaldi guztiak.

http://www.navarra.es/home_eu/especial/PreinscripcionEscolar/ helbidean egin daitezke aurre-inskripzioak, eta 848426617-848426977 telefono zenbakietara deituta jaso dezakezue informazio gehiago.

Publizitate-kanpaina orokorraren gastu osoa 56.000 eurokoa da, eta prentsan, irratian eta aldizkarietan egingo da.

Hiru urteko ia sei mila ikasle hasi dira Nafarroako hezkuntza-sisteman 2016-2017 ikasturtean.

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako guztien artean, 18.395 ikaslek eman dute izena irakaskuntza publikoko D ereduari.